EHAA

EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA

www.euskadi.net 2012ko otsailaren 10a, ostirala 30. zk.

LABURPENA

XEDAPEN OROKORRAK

HERRIZAINGO SAILA

10/2012 DEKRETUA, otsailaren 7koa, Euskadiko Autonomia Erkidegoan Hiriarteko Trafikoaren Kudeaketa Sistema arautzen duen Dekretua bigarrenez aldatzeko dena; eta, bestetik, Euskadiko Trafikoa Kudeatzeko Zentroa sortzen duena. 661

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

AGINDUA, 2012ko urtarrilaren 20koa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Ricardo Minguez Muñoz jauna Lan Ikuskaritzako lurralde-zuzendari kargutik kentzea xedatzen duena. 662

Oposaketak eta lehiaketak

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

EBAZPENA, 2012ko urtarrilaren 30ekoa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren 2011ko urriaren 19ko Ebazpena aldatzen duena. Ebazpen horren bidez, 2011ko urtarrilaren 10eko Ebazpena aldatzen duen 2011ko abuztuaren 31ko Ebazpenean egindako hutsak zuzendu ziren. 2011ko urtarrilaren 10eko Ebazpenak, 2011rako Enplegu Publikoaren Eskaintza argitaratzeko agintzen du, oinarri orokorrak zein bereziak onartzen ditu, eta agentzia horretan lan-kontratuko langile jardungo duten bederatzi langilerentzako lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuen deialdia egiten du. 663

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

EBAZPENA, 2012ko urtarrilaren 19koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearena, 2011ko abenduaren 23ko ebazpenean egindako akatsak zuzentzekoa. Ebazpen horren bidez UPV/EHUko lanpostu bat izendapen askearen bidez betetzeko deialdi publikoa egin zen. 664

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

HUTSEN ZUZENKETA, honako agindu honena: «Agindua, 2011ko abenduaren 20koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena. Honen bidez ezartzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan 2012-2013 ikasturtean izena emateko eskaerak aurkezteko egutegi komuna eta onarpen-epea, baita ikastetxe horietan ikasleak onartzeko jarraibideak ere.» 665

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

AGINDUA, 2012ko urtarrilaren 10ekoa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan «Fundación Etorkintza» Fundazioaren estatutuetako 2. artikuluaren aldaketa onartu eta inskribatzeko dena. 666

IRAGARKIAK

Obra, zerbitzu eta horniduren enkanteak eta lehiaketak

EUSKO LEGEBILTZARRA

EBAZPENA, 2012ko urtarrilaren 10ekoa, Eusko Legebiltzarreko Mahaiarena, Eusko Legebiltzarrerako 48 zerbitzari ultradentsoren horniketa eta instalazioa kontratatzeko lehiaketa publikoaren esleipenaren berri emateko dena (Espedientea: 06-1000-11). 667

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

IRAGARKIA, «Difteria-Tetanos-Pertussis azelularra, Poliomielitis injektagarria-Haemophilus Influenzae (b mota) eta B Hepatitisaren aurkako txerto Hexabalentearen (DTPa-VPI-HIb-HB) 66.000 dosi erostea» helburu duen hornidura-kontratu administratiboa esleitu dela jakitera ematen duena (Espedientea: C03/003/2011). 668

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

IRAGARKIA, «Gipuzkoako Osasun Barrutiko Debagoieneko eta Bizkaiko herri mugakideetako pazienteak errehabilitatzeko zerbitzu anbulatorioak –1. eta 2. lotea–» kontratatzeko espedientea esleitu dela argitara emateko dena (Espedientea: 7/2012-G.S.P.). 669

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

IRAGARKIA, «Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremurako hiri-altzariak diseinatzeko proiektu-lehiaketaren» zerbitzu-kontratu administratiboa esleitzeko dena (Espedientea: 001CP/2011). 670

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

IRAGARKIA, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuarena, «Preskripzio unibertsalaren sistemak EAEko errezeta elektronikoaren sisteman duen integrazioa aztertu, garatu eta ezartzeko zerbitzuak kontratatzeko» espedientea lizitatzeko prozedura irekiari buruzkoa. 671

IRAGARKIA, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuarena, Osakidetzak sortutako zenbait testu euskaratzeko eta euskaratik gaztelaniara itzultzeko zerbitzuaren kontratazio-espedientearen lizitazioari dagokiona (prozedura irekia). 672

Beste iragarki ofizial batzuk

URAREN EUSKAL AGENTZIA

IRAGARKIA, zeinen bidez jakinarazten baita Uraren Euskal Agentziaren zuzendariaren 2011ko abenduaren 12ko Ebazpena, Gregorio Jose Ezcurra García de Unzueta jaunaren gainekoa. 673

Pribatuen iragarkiak

SOCIEDAD PARA LA TRANSFORMACIÓN COMPETITIVA-ERALDAKETA LEHIAKORRERAKO SOZIETATEA, S.A.

IRAGARKIA, +INTRAEKINTZAILETZA programaren araudia onartzeko dena. 674

METRO BILBAO, SA

IRAGARKIA, Metro Bilbao Sozietate Anonimoarena, hornitzaileak sailkatzeko hautatutako sistema aditzera emateko dena. 675